

OSOKO BILKURA 2021-6-24

Organoa: Udal Plenoa

Izaera: Ohikoa

Deialdia: Lehena

Eguna: 2021-6-24

Ordua: Hasiera 18:35etan.

Bukaera 19:40etan.

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: Izaro Elorza Arregi andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- .- Xabier Igartua Loidi jauna (EH Bildu)
- .- Iñaki Olalde Alzelai jauna (Bildu)
- .- Maite Anton Leno andrea (EH Bildu)
- .- Iker Oñate Ayastuy jauna (EH Bildu)
- .- Susana Altuna Ugarte andrea (EH Bildu)
- .- Vicente Urrutia Elexpuru jauna (EH Bildu)
- .- Alaitz Kortabarria Igartua andrea (EH Bildu)

- .- Ainhoa Galdos Olazar andrea (EAJ-PNV)
- .- Andoni Altuna Uribe jauna (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi andrea (EAJ-PNV)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga andrea (EAJ-PNV)
- .- Angel Biain Peña jauna (EAJ-PNV)

Idazkaria: Iñigo Roldan Catalan jauna

Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

Ez dira bertaratu:

- .- Anik Maitane Zubizarreta Arturo andrea (EH Bildu)
- .- Asier Iraeta Izagirre jauna (EH Bildu)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien jauna (EAJ-PNV)
- .- Nerea Altube Galdos andrea (EAJ-PNV)

AZTERGAIK

1. Ekainaren 28a dela-eta LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunaren aldeko egindako adierazpen instituzionala.
2. Onartzea, hala badagokio, 2021-05-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (5.2021).
3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Zinegotzi baten %30eko dedikazio eta bere ondainsaria onartzea, Pertsonal eta barne antolamendu Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 4an.
4. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: plan orokorra idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak onartzea 2/2006 Legearen 90.4 artikuluaren arabera, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.
5. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: II.7 H.G. Migelena sektoreko Plan Partzialaren aldaketa behin betiko onartzea, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.

6. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Kalegoienako garaje baten salmenta, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.
7. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: ██████████ egindako eskaera onartzea eta Olaburu zentruko ZM8 bulegoa alokatzea, Sozioekonomia eta Turismoko Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 6an.
8. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Etxez etxeko laguntza zerbitzu Kontratua urtebetez luzatzea 2022ko irailaren 30era arte, Ongizate Zerbitzu Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.
9. Hala badagokio, presako gaiak.
10. Hala badagokio, larrialdi-mozioak.
11. 2021eko ekainaren 8ko 628 zenbakia duen Alkate Dekretuaren berri ematea, non Kontratazio-arloko zenbait eskumen gobernu-batzarrari eskuordetzen zaizkio.
12. 2021eko ekainaren 8ko 631 zenbakia duen Alkate Dekretuaren berri ematea, non Udalaren zenbait kontratu txiki izapidetzeari buruzko jarraibide onartzen den.
13. Maiatzaren 22tik ekainaren 18a bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 542 zenbakitik 688 zenbakira.
14. Galderak eta eskaerak.

Akta honen parte da saioaren soinu-grabazioaren ondoriozko fitxategia. MP3 formatuko fitxategi bat da, Udaleko Zerbitzariaren saioko karpetan dagoena, osoko bilkuraren datarekin.

BILERA:

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 91.3 artikulua arabera, alkateak lehenengo gaiaren ordena aldatu du eta geroago aztertuko dela adierazten du.

2

2. Onartzea, hala badagokio, 2021-05-27ko ohiko osoko bilkuraren akta, (5.2021).

Galdetu da ea Udalbatzako kideren batek oharren bat egin behar duen aurreko bilkurako aktari buruz.

Alkateak bere parte hartze txandan zeinbait esaldi gehitzea proposatu du:

28. orrialdean, bere lehen parte hartze txandan: *“HAPOA 2018an hasi zen lantzen, diagnostiko bat egin zen eta ondoren, hor jasotakoarekin, idazketa taldeak eredu ezberdinak proposatu zituen. Guzti hauetan parte-hartzea egon zen, 2019an eredu aukeratzeko tailerrak egin ziren, aholku kontseiluan baita, eta hor udal ordezkariak bageundela (Angel, Andoni...) eta horrekin osatu zen aurrerakina.*

Aurrerakina jendaurrean egon zen (web gunean eta kontzejun ere argitaratu zen), ohikoa baino denbora luzeagoan (abuztua tartean zelako) eta horren ondorioz 15 proposamen jaso genituen. Kontutan izan behar da proposamen horiek kontutan izateko interes orokorrekoak izan beharko lirakeela, eta gehientsuenak pribatuak izan ziren.

Informazioa Kontzejupetiken ere argitaratu izan zen tailerrera gerturatu ginean.

Behin guzti hau eginda, itzulketa saio ireki bat egin zen maiatzean, aurrerakina azaldu eta hurrengo fasearekin lotura egiteko. Orain helburu eta irizpideak onartu behar ditugu, eta horrekin batera onartzen diren proposamenei erantzun beharrekoa. Horren ostean, osokora eraman eta gero bidaltzen zaie erantzuna.

Ondoren etorriko da HAPOaren idazketa, xehetasunetan sartzen da eta hasierako onarpena gauzatu.

Herritarren parte-hartzea noski izaten dugula kontutan, eta hurrengo fasean ere hala egingo dela.”

24. orrialdean: *“Gure mozioarekin egiten dugu aurrera, izan ere, zuen mozioan palestinar eta israeldarrak parean jartzen dituelako, eta gure ustez babes berezia adierazi behar zaielako palestindarrei, ez direla parekoak.”*

Zenbait zinegotziek Elorza andreak esandakoa ikuskatzea eskatzen dute. Beraz, Idazkariak akta mahai gainean uztea proposatzen du, Elorza andreak egindako ohar horiek grabazioan ikuskatzeko.

3. Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Zinegotzi baten %30eko dedikazio eta bere ondainsaria onartzea, Pertsonal eta barne antolamendu Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 4an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gemma Urbina Vinuesa (Giza Baliabide teknikaria) 2021eko ekainaren 4an egindako Pertsonal eta Barne Antolamendu batzordearen ziurtagiriak, ziurtatzen du hurrengo akordio hau batzar horretan aldeko irizpena eman zuela.

Akordio proposamena hau da:

Aurrekariak

Lehenengoa.- 2019ko uztailaren 23ko osoko bilkurak, Ogasun Batzordearen irizpena aldekoa izanik, honako hau onartu zuen Alkate zein zinegotzien dedikazio eta soldatei buruz:

A.- Alkatea: abenduaren 21eko 7/2018 Arau Foraleko 5. xedapen gehigarrian oinarrituta, soldata hau izatea: hileko gordina **3.480,7€ (garbia 2.524,67€)**.

B.- Gainontzeko zinegotziak:

%100eko dedikazioaz: Soldata gordina 2.683, 36 euro; garbia 2.000 euro, Alkatearena baino %23 gutxiago.

B.1.- Xabier Igartua Loidi jaunak, 1. Alkateordeak, %50eko dedikazioa eta soldata hau izatea: hileko gordina **1.341,68** euro. Alta data: 2019ko uztailaren 1a.

B.2. Anik Maitane Zubizarreta Arturo alkateordeak %60ko dedikazioa eta soldata hau izatea: hileko gordina **1.610, 016€**. Alta data: 2019ko uztailaren 1a.

B.3. Iñaki Olalde Altzelai alkateordeak %30eko dedikazioa eta soldata hau izatea: hileko gordina **805€**. Alta data: 2019ko uztailaren 1a.

C.- Oposizioko zinegotzia (EAJ-PNV Udal taldeak hala eskatu duelako eta apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 33. artikulua onartzen duelako)

.- Eudeleko batzorde eragileak 2017ko apirilaren 10ean onartu zuen LILE-ko 33. artikulua interpretazioaren arabera, Gobernu-taldean gutxien kobratzen duen zinegotziaren %10 baino gutxiago %100eko dedikazioaz: Soldata gordina 2.415,04 euro, garbia 1.848,46 euro.

.- Ainhoa Galdos Olazar andreak %60ko dedikazioa eta soldata hau izatea: hileko gordina **1.449,024€**. Alta data: 2019ko irailaren 1a.

Datorren urtetik aurrera aipatutako soldatak eguneratuko dira, Udaletxeko langileei aplikatzen zaien soldata igoeraren arabera.

Bigarrena.- Aurreko akordioa 2019eko abuztuaren 5eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (147. Zenbakia) argitaratu zen.

Hirugarrena.- 2021eko ordainsariak honako hauek dira, Udaletxeko langileei aplikatzen zaien soldata igoeraren arabera eguneratuak:

A.- Alkatea: Izaro Elorza Arregui Andreak, dedikazio eksklusiboa, hileko gordina **3.582,27euro**.

B.1.- Xabier Igartua Loidi jaunak, 1. Alkateordeak, %50eko dedikazioa, hileko gordina **1.380,83 euro**.

B.2.- Anik Maitane Zubizarreta Arturo alkateordeak, %60ko dedikazioa, hileko gordina **1.657,00 euro**.

B.3.- Iñaki Olalde Altelai alkateordeak, %30eko dedikazioa, hileko gordina **828,50** euro.

C.- Ainhoa Galdos Olazar andreak , oposizioko zinegotzia, %60ko dedikazioa, hileko gordina **1.491,30** euro.

Laugarrena.- Asier Iraeta Izagirre zinegotzia eta Ingurumena batzordearen lehendakariari 2021eko irailaren 1etik aurrera % 30eko dedikazio partziala esleitzea proposatzen da.

Bosgarrena.- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela.

Zuzenbideko oinarriak.

Lehenengoa.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.2 artikulua honako hau dio: *"Toki-korporazioetako kideek, baldin eta beren karguak dedikazio partzialarekin betetzen badituzte lehendakaritza-, lehendakariorde- edo eskuordetze-eginkizunak betetzeagatik edo hala eskatzen duten erantzukizunak garatzeagatik, ordainsariak jasoko dituzte kargu horietan benetan emandako denboragatik; kasu horretan ere, Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean alta emango zaie kontzeptu horretan, eta korporazioek beren gain hartuko dituzte dagozkien enpresa-kuotak".*

Bigarrena.- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, 32. Artikuluak honako hau xedatzen du, Toki-erakundeetako ordezkarien eskubide ekonomikoak eta dedikazio-araubideari buruz:

"1. Toki-ordezkariek toki-araubidearen oinarritzko legerian aurreikusten diren eskubide ekonomikoak eta arduraldi-erregimenaren modalitateak izango dituzte, eta, hala badagokio, lege honetan bereziki arautzen direnak.

2. Arduraldi eskusiborako eskubidea aitortzen da, berariaz uko egin ezean, eta 1.000 biztanletik gorako udallerrietan alkateari ordainsaria jasotzeko eta Gizarte Segurantzaren alta emateko eskubidea aitortzen zaio.

3. Osoko bilkurak, alkateak proposatuta, dedikazio eskusiboko edo partzialeko erregimenean dauden karguak edo korporaziokideak zehaztuko ditu, bai eta dagozkien ordainsariak ere. Osoko bilkuraren erabakiak, arduraldi partzialaren kasuan, ordainsari horiek jasotzeko gutxienezko arduraldiaren araubidea jaso beharko du.

4. Arduraldi eskusiboa edo partziala ez duten toki-erakundeko kideek bakarrik jaso ahal izango dituzte ordainketak, bertaratze-kontzeptuan, eta osagai finko batek eta aldagarri batek zehaztuko dituzte. Osagai finkoaren bidez, udal-ordezkarri guztientzat berdina dena, kide anitzeko organoetara eta karguaren ondoriozko bileretara edo jardueretara joatea ordainduko da. Osagai aldagarriaren bidez, ordezkari-tz-karguaren erantzukizunarekin lotutako funtzioak bereiziko dira. Osoko bilkurak zehaztu ahal izango ditu korporatibo bakoitzak bertaratze gisa jaso ditzakeen urteko gehieneko mugak.

5. Toki-erakundeetako kideek kalte-ordainak jasoko dituzte beren kargua betetzean sortutako benetako gastuengatik, herri-administrazioetan oro har aplikatu beharreko arauen eta osoko bilkurak bere garapenean onesten dituen arauen arabera.

6. Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetako hautetsien eginkizun publikoak betetzeko ezinbesteko denboratza jotzen da kasuan kasuko erakundeetako kide anitzeko organoetan parte hartu eta laguntza ematera bideratutakoa. Izaera hori izango dute, halaber, hautetsiek ordezkari-tz-zereginetan, eskuordetutako eginkizunetan edo beste erakunde batzuekin edo herritarren elkarrekin egindako bileretan emandako denborak, bai eta beren karguari dagokion beste edozein jardueratan emandako denborak ere, betiere kontuan hartuta, hala badagokio, eskubide horiei dagokienez, lan-legerian eta funtzio publikoari buruzkoan aurreikus daitezkeen aurreikuspenak."

Hirugarrena.- Herri Administrazioen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 5.2 artikulua ikusita, honako hau adierazten du: *"Toki-korporazioetako kideen kasuan, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.2 artikulua aipatzen duen arduraldi partzialeko egoeran badaude, ordainsariak jaso ahal izango dira arduraldi horrengatik, baldin eta beren lanalditik kanpo ezartzen badituzte eta inola ere gainditu gabe oro har ezartzen diren*

mugak. Toki-korporazio bateko kide batek dedikazio partzialeko araubidean lan egiten duen administrazioak, eta azken horrek, bakoitzari dagokion lanaldia eta jasotzen dituzten ordainsariak elkarri jakinarazi beharko dizkiote, bai eta horietan gertatzen den edozein aldaketa ere. "

Laugarrena.- 2021eko Gipuzkoako Aurrekontuen 1. Xedapen Gehigarriak honako hau dio: *"Asistentziengatik eta ordainsari kontzeptu guztiengatik toki korporazioetako kideek jaso dezaketen zenbatekoaren gehieneko mugak ondorengo taularen arabekoak izango dira, kanpoan utzita, hala balegokio, zerbitzu berezien egoeran dauden karrerako funtzionarioek jaso ditzaketen hirurtekoak, eta kontuan izanda, besteak beste, toki entitatearen izaera eta biztanleria: 10.001etik 20.000rak biztanleak: Eusko Jaurlaritzako zuzendariaren soldataren erreferentzia."*

Azaldutakoagatik, Pertsonal eta Barne Antolaketa Batzordean gaia aztertu ondoren, osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

Lehenengoa.- Onartzea dedikazio partzialeko korporazioko kideek jaso beharreko ordainsari ekonomikoen aldaketa, honako hauen arabera:

Ingurumena batzordearen lehendakari eta zinegotzia, % 30eko dedikazio partzialarekin, urtean 11.598,97 euro gordinoko ordainsariarekin, hamalau ordainsari berdinetan banatuta (828,50 euro hilean). Aipatutako soldata urtero eguneratuko da, Udaletxeko langileei aplikatzen zaien soldata igoeraren arabera.

Kide horrek ezin izango du parte hartzen duen kide anitzeko organoen bilkuretan parte hartzeagatik bertaratzeagatik dietarik jaso, eta, gainera, karguari dagozkion zereginetan jardun beharko du, gutxienez dagozkion dedikazioaren ehunekoan.

Bigarrena.- Erabaki honek 2021ko irailaren 1etik aurrera izango du eragina.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

Laugarrena.- Erabaki hau Pertsonaleko departamenduari eta kontu-hartzaileari jakinaraztea.

Bostgarrena.- Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaleko iragarki-oholean argitaratu.

Gaia aztertuta, eta Pertsonal eta barne antolamendu Informazio batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

4.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: plan orokorra idazteko oinarri izango diren irizpideak eta helburuak onartzea 2/2006 Legearen 90.4 artikulua arabera, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena.

Iñaki Landa Azkoaga (Hirigintza Batzordeko idazkaria eta Udal arkitektoa) 21eko ekainaren 15ean egindako Hirigintza batzordearen sinatutako aktak dio:

"Irizpide eta soluziobide nagusiak onartzea, Oñatiko Hirigintzako Antolamendurako Plan Orokorraren lanak burutzeko

Oñatiko Hiri-antolamendurako plan orokorra idazteko zerbitzuaren kontratazioaren esleipena Sabai arkitektoak S.L enpresaren alde egitea erabaki zuen Osoko Bilkurak, 2018ko otsailaren 22an.

Hirigintza Informazioari eta Diagnostikoa burutu ondoren, Aurrerakinari dagokion dokumentazioa aurkeztu zuen enpresak, Informazioa eta Diagnostikoa aintzat hartuta, partaidetza prozesuan zein 2019ko abenduaren 16an burututako Hirigintza Planeamendurako Aholku Kontseiluan jasotako

proposamenak eta ondorioak jasotzen zituena. Horrekin batera, HAPOren ingurumen-ebaluazioari dagokion hasierako agiri estrategikoa aurkeztu zuen.

Hiria Antolatzeko Plan Orokorren Aurrerakina argitaratzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak, 2020ko uztailaren 16an.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko, ekainaren 30eko, 2/2006 Legearen 90.artikuluaren arabera, Aurrerakina jendaurrean hiru hilabetez jarri zuen Udalak, epe horretan iradokizunak eta alternatibak aurkeztu ahal izateko.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2020/08/12, GAO 152 zk.), Udal Iragarki Taulan eta Gara (2020/08/20) nahiz El Diario Vasco (2020/08/20) egunkarietan argitaratu zen Erabakia. Horrez gain, Aurrerakina udal mugakideetara bidali zen. 2020ko abuztuaren 12tik azaroaren 13 arte jendaurrean egon den epean, 3 jakinarazpen eta 15 iradokizun-idatzi jaso dira, ondorengo pertsona eta elkarteek aurkeztuak:

- 1.- Legazpiko Udala
- 2.- Eusko Jaurlaritzza
- 3.- Gipuzkoako Foru Aldundia
- 4.- Juan Ignacio Gordo Mendizabal
- 5.- I.34 H.G Kurtzekua Hitzarmen Batzarra
- 6.- Italeiba SL
- 7.- Promociones Kurtzekua SL
- 8.- Maria Luisa Azurmendi Larrea
- 9.- Lana SCoop
- 10.- Marcos Sagasti Maiztegi
- 11.- Pedro Ayastuy Aguirreren oinordeko komunitatea
- 12.- Hipólito Zubia Ortueta - Juana Barrena Inza
- 13.- José Luis eta Sebastián Irizar Etxebarria
- 14.- Berezao 1, 2 eta 3 zenbakiko jabekideak
- 15.- Javier eta Pedro José Moreno Zulueta
- 16.- Grupo Ulma S.Coop
- 17.- EAJ-PNV
- 18.- Autlan EMD, SLU

6

Hauek dira jasotako 3 jakinarazpenen edukia:

1.- Legazpiko Udala

Aurrerakinak ez du eraginik Legazpiko plangintzan. Brinkola eta Oñati arteko trenbide-lotura proposamenari jarraipena egin beharko zaio, proiektu zehatzik ez dagoen neurrian. Legazpiko Plan Orokorren berrikuspenean kontuan hartzea proposatzen da. Konexio horren paisai inpaktua aztertu beharko da.

2.- Eusko Jaurlaritzza

Oñatiko HAPOren ingurumen-azterketa estrategikoaren Irismeneko Dokumentua formulatzen duen 2020ko irailaren 28ko Ebazpena helarazten da, eta, horrez gain, egindako kontsulten fasean jasotako eraginpeko administrazio publikoen eta herritar interesdunen erantzunen kopia ere bidaltzen da, lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan xedatutakoa betez.

3.- Gipuzkoako Foru Aldundia

Aurrerakinean hartutako aurreikuspenak zuzentzat jotzen dira eta hainbat xehetasun aipatu dira:

- Lurraldearen kontsumoa modu neurritsuan eta zentzudunean egin da, garatu gabe dauden eremuak hiri lurzorutik ateraz, lurzoru berririk sailkatu gabe eta hiri-lurzorua berroneratuz.

Horren ondorio nabarmen bat ekarriko du; erdigunean birkalifikatutako eremuen dentsitatea altua izatea, beharrezkoak diren etxebizitza kopurua lortzeko, nekez beteko luke espazio libre, ekipamendu edo profil egokien baldintzak

- Saihesbidearen bigarren fasearen trazatua (2,4 km Zubillaga-Ugartondo) HAPOn adieraztea komenigarria litzateke.
- Saihesbidearen laugarren faseak (2 km, Berezaio-Olabarrieta) lehentasun handiagoa lortuko luke Adif-eko Aldi Baterako trena Telleriartetik Oñatiraino konexioa gauzatuko balitz

Hona hemen iradokizunen edukia, gaika edo eremuka jasota:

1.- Ibaiertzeko hiri-pasealekuak (sarrera: 3213)

Lazarragako lorategien eta Zubibari kalearen artean ibaiertzeko hiri-pasealeku gisa erabilera publiko bat eratzearen aurka agertu da; alde batetik, beste aldeko ibaiertzetik egitea aipatu du, bestetik, inbentarioan sartutako eta 100 urte baino gehiagoko lorategian dakarren txikizioa, eta, azkenik pasealeku hori udalerrri osora zabaltzea.

2.- 1.34 Kurtzekua hirigintza gunea (sarrerak: 3249, 3252, 3287, 3294, 3332)

Akats bat dago 1.34. "Kurtzekua" eremuko zati grafikoaren eta idatziaren artean, non ez datorren bat eremu horren mugaketa, (6.500 m² txikiagoa da, lurzoru urbanizaezina izatera igaroko litzatekeen azalera)

3.- 1.25 Igartua hirigintza gunea (sarrera: 3251)

Eremua hiri-lurzoru finkatu gabea izaten jarraitzea eskatzen da, 0,4 m²/m²-ko eraikigarritasuna egokituta.

4.- Kantonoste (sarrera: 3261)

Kantonoste 4 eta 6 zenbakien egoera prekarioa eta aurri-deklarazioaren eskaera kontuan hartuta, bi higiezinak urbanistikoki berriz aztertzeke eskatzen du, horiek ordezkatzeko eta eremu horretarako eremu berri bat sortzea ahalbidetuz.

5.- 1.43 Santxolopeztegi (sarrera: 3281)

1.43 Santxolopeztegi industrialdearen eremua handitzea, inguruko lurzoru urbanizaezinean kokatutako Santxolopeztegi auzoa 6-7 baserriko lurrak eremu industrialarekin batuta. enpresaren ekoizpena handitu ahal izateko.

6.- 1.22 Berezaoko industria gunea (sarrerak: 3287, 3316)

Eremu honen inguruan bi iradokizun jaso dira. Alde batetik, eremu honen berrantolamenduaren aurka agertu dena. Alternatiba gisa, etxebizitza hutsetan jarduketa publiko bat egitea proposatu du, San Martin auzoari jarraipena ematea, Errekalde eta San Lorentzo artean edo Fagorren atzean dauden belardietan eraikitzea, edota ezer ez planifikatzea ere. Bestetik, eremua berritzeko eta hobetzeko beharrek erabateko adostasuna adierazi duena, egungo etxebizitzak finkatzea proposatuz.

7.- Martzelino Zelaia 7 (sarrera: 3300)

Zuzkidura-jarduketa proposatzen du; eraikigarritasuna handitzea partzelaren ibai ertzeko eremuaren lagapena bideratzeko: 2.550 m²(t) arteko eraikigarritasuna, S+BO+4ko profilean eta oinplanoan 510 m²(s) inguruko okupazioarekin, ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuan ezarritako lagapenak eginez, pasealekurako eta ibai-parkerako lurzoruaren 704 m² lagaz, besteak beste.

8.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak (sarrera 3378)

Jarduera ekonomikoko eremuen kalifikazio orokor eta xehatuak definitzerakoan moldakortasunaren eta malgutasunaren alde egiten du, industria-lurzoruaren 3 mota edo azpizona proposatzen ditu, bai eta horietako bakoitzeko eraikuntza-erregimena ere.

Bestalde, industria-guneetako gehiegizko aparkaleku-estandarrak, batzuetan, lurzoru eraikigarri potentzial eta beharrezko baten aprobetxamendua galtzea dakar, eta ez du mugikortasun jasangarria sustatzen, enplegu bakoitzeko ia plaza bat sortzen baita, eta, enpresa bakoitzaren premien eta/edo gertu aparkaleku publikoak egotearen arabera, planteatzen du pertsona bakoitzeko 0,6 aparkalekuko gutxieneko ratioa ahalbidetzea.

9.- Herritarren parte-hartzea (sarrera: 3382)

Ondorengo gabeziak azaldu dira: dokumentua azaltzen duen saio irekia, Aurrerakineko planoak erakusteko espazio fisikoa, jendaurreko erakusketa luzatzea eta web orria behar bezala eta etengabe elikatzea.

10.- Bizitegi-lurzorua (sarrera: 3382)

Cegasa-Berezaio garapen-aukeren bideragarritasun azterketak egitea eskatzen du. Lazarragako behealdean dentsitate ertaineko bizitegi-garapena aurreikusi.

11.- Bide-sarea, (sarrera: 3382)

GI-2630 errepidean Munazategi, Kanpiazelai eta hiriguneko sarrera nagusiko biribilguneak jasotzea, Udalaren esku dauden proiektuen arabera.

12.- Ekipamenduak (sarrera: 3382)

Urrutxuko eta hilerriko hiri-lurzoruaren sailkapena mantentzea eskatu dute. Futbol zelaia Korriuena baserri inguruan kokatzea aztertzea.

13.- Hiri-lurzoruaren sailkapena (sarrera: 3382)

Okomordin, Azkoagain, Santa Ana Komentua eta Urrutxuko Kirolgunea Hiri-lurzoru gisa sailkatzea, eraldatu diren eta hiri-bilbearen barruan dauden edo egon daitezkeen lurzoruak direla uste baita.

14.- 1.39 Urrutxuko kirolgunea

Hirigintza-eremua goiko gunera birmugatu eta zabaltzea, aurreikusitako jariatze-ura geldiarazteko eta eraikitako errekarra eramateko beharrezkoak diren lurzoruak lortu ahal izateko.

15.- Ondarea eta paisaia (sarrera: 3382)

Landa-paisaiaz gain, hiri-inguruneetako paisaia babestea, bai eta ondare historiko, kultural eta arkitektonikoa ere, ordenantzen edo antzeko tresnen bidez, guztion ondarean jarduera iraingarriak saihesteko.

16.- Ibarra Zelaia 1 (sarrerak: 3385, 3382)

Lehenengo iradokizuna: Cegasako eremuaren berkalifikazioaren aurka azaltzen da, lantegia erosi zuen enpresaren ingurumen-alderdiak eta Aurrerakinean xedatutakoa gauzatzeko erronkek dakartzaten oztopo ekonomiko eta logistikoak azpimarratzen ditu; izan ere, ezin dira arazoizko epean eta aurrekontuan lortu, hau da, bideraezinak dira. Iradokizun gisa, B aukera berrartzea planteatzen da, jarduerari bere egungo kokapenean eusten zaiolako, instalazioen irudia eta estetika hobetuz eta Oñati ibaia gehiago eta hobeto mantenduz.

Bigarren iradokizuna: Cegasako jarduketa-eremua "Arboledako Industria Gunea" A.14 eremuko gainerakotik bereiztea.

Jasotako ekarpenak aztertu ondoren, "Iradokizunei buruzko txosten teknikoa" egin du Aurrerakina dokumentua idatzi duen lantaldeak. Dokumentu horretan, aurkeztu diren iradokizunak aztertzen dira eta, balorazioa egin ondoren, haietako bakoitzari buruzko proposamena egiten da.

Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorreko Aurrekina, jasotako iradokizunak eta Aurrekinaren egile den lantaldearen balorazio-dokumentuak aztertu ondoren, dokumentu horietan biltzen diren proposamenak bere egiten ditu Hirigintza Batzordeak, ondoren agertzen direnak:

1.- Ibaiertzeko hiri-pasealekuak (sarrera: 3213)

Ur Legea eta garapen dekretuetan oinarrituta, jabari publiko hidraulikoa eta bost metroko zabalerako zortasun-eremua kontuan hartuta, ekarpena ez onartzea dagokio, txostenean azaldutako moduan. Aurrekinean ezarritako determinazioak mantendu egingo dira

2.- 1.34 Kurtzekua hirigintza gunea (sarrerak: 3249, 3252, 3287, 3294, 3332)

Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan.

3.- 1.25 Igartua hirigintza gunea (sarrera: 3251)

Laburbilduta, ez dagokio hiri-lurzoru finkatu gabe gisa sailkatzea, 2/2006 Legearen arabera, (urbanizazioa ez da nahikoa aurreikusitako garapenerako, eremua lurzoru urbanizaezinak inguratzen du, etab).

Ekarpena ezestea, txostenean azaldutako moduan.

4.- Kantonoste (sarrera: 3261)

Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan. Gai honen inguruan, zerbitzu teknikoek egindako argipena kontuan hartu behar da, izan ere, aipatutako eraikinek oinarritzko babes-aurrekariak, Oñatiko herrigune historikoa (Gipuzkoa) kultur ondasun, monumentu-multzo kategoriarekin, kalifikatzeko eta haren babes-araubidea ezartzeko den 157/2012 Dekretuaren arabera. Horrela, Oñatiko Herrigune Historikoa Birgatzeko Plan Berezia idatzi arte, Foru Aldundiari dagokion eraikin horietan egin daitezkeen esku-hartzeak baloratzea, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen arabera.

5.- 1.43 Santxolopeztegi (sarrera: 3281)

Industria premiak sakonean aztertu behar dira eta jarduera jakin honen benetako beharrak, ekarpenari erantzun ahal izateko. Horrez gain, eremu horren ezaugarriak kontuan hartu behar dira; bide publikoen sarea eta Balantzategi baserria kontserbazioan izan lezakeen eragina baloratuta.

Hasiera bateko Onarpen-dokumenturako proposamena da. Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan

6.- 1.22 Berezaoko industria gunea (sarrerak: 3287, 3316)

Ekarpena ezestea, txostenean azaldutako moduan.

7.- Martzelino Zelaia 7 (sarrera: 3300)

Hasiera bateko Onarpen-dokumenturako proposamena da. Eraikigarritasuna aztertu beharko da, besteak beste.

Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan.

8.- Jarduera ekonomikoetarako lurzoruak (sarrera 3378)

Hasiera bateko Onarpen-dokumenturako proposamena da.

Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan

9.- Herritarren parte-hartzea (sarrera: 3382)

Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan.

10.- Bizitegi-lurzorua (sarrera: 3382)

Herritarren partaidetzarako tailerretan planteatutako alternatibek azterketan, lurzoru berriak ez sailkatzea eta urbanizatzea erabaki zen; lurzoruak eraldatzea erabaki zen, Lazarragaren aukera baztertuz.

Ekarpena ezestea, txostenean azaldutako moduan

11.- Bide-sarea, (sarrera: 3382)

Hasiera bateko Onarpen-dokumenturako proposamena da. Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan

12.- Ekipamenduak (sarrera: 3382)

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2206 Legearen 11.1 artikularen arabera, “hiri-lurzoru gisa sailkatuko dira eraldatuak izan diren eta lehendik dagoen hiri-bilbean -sailkapena egiten duen plan orokorrak bere egiten duen neurrian- sartuta dauden edo sar daitezkeen lursailak”. Horrela, Urrutxuko eta hilerriko sailkapenaren inguruko ekarpena ez onartzea dagokio. Bestalde, ekipamendu berriei inguruan dagokion proposamena egingo da hurrengo fasean.

13.- Hiri-lurzoruaren sailkapena (sarrera: 3382)

Iradokizun honetan proposatutakoari buruz Aurrekinean ezarritako determinazioak mantendu egingo dira.

14.- I.39 Urrutxuko kirolgunea

Proiektu batek eman behar dio irtenbidea aipatutako arazoari. Ez da eremua zertan handitu behar. Hala ere aztertuko da. Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan

15.- Ondarea eta paisaia (sarrera: 3382)

Hasiera bateko Onarpen-dokumenturako proposamena da. Ekarpena baiestea, txostenean azaldutako moduan

16.- Ibarra Zelaia 1 (sarrerak: 3385, 3382)

Oñatiko Plangintzako Arau Subsidiarioetako “Arboledako Industria Gunea” I.37 hirigintza-eremuko arau partikularrak eta Arrasate-Bergarako (Debagoiena) Lurralde Plan Partzialak zehaztutako baldintzak kontuan hartuta, ekarpena ezestea, txostenean azaldutako moduan...

10

Hori guztia gogoan izanda, Hirigintza Batzordeak, Udal Plenoari ondorengo erabakia har dezan eskatzea onartu du:

“Oñatiko Planeamendurako Aurrekina” izeneko dokumentuan bildutako irizpide eta soluziobide nagusiak onartzea, Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrari dagokion hasierako dokumentua burutzeko. Era berean kontuan hartu beharko dira iradokizunei erantzuteko lantaldeak idatzitako dokumentuan biltzen diren proposamenak eta industriaren garapenerako benetako beharrak aztertu beharko dira.

HAPO idazten ari den lantaldeari emango zaio erabaki honen berri, idatz dezan Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrari dagokion hasierako dokumentua. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuta eta Udal web orrian argitaratuko da erabakia. Halaber, iradokizunak burutu dituzten egileei erabaki honen berri eta erantzun proposamena bideratuko zaie.”

Azaldutakoagatik, Hirigintza batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

Akordioa

Lehenengoa.- “Oñatiko Planeamendurako Aurrekina” izeneko dokumentuan bildutako irizpide eta soluziobide nagusiak onartzea, Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorrari dagokion hasierako dokumentua burutzeko.

Bigarrena.- Erabaki hau HAPO idazten ari den lantaldeari jakinaraztea.

Hirugarrena.- Iradokizunak burutu dituzten egileei erabaki honen berri eta erantzun proposamena jakinaraztea.

Laugarrena.- Erabaki hau oso-osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian eta Udaleko Web orrian argitaratu.

PARTE HARTZEKO TXANDA

PARTE-HARTZAILEAK:

Galdos andrea.
Elorza andrea.
Biain jauna.
Erostarde andrea.
Igartua jauna.
Galdos andrea.
Biain jauna.

Gaia aztertuta, eta hirigintza batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena onartu egin da. Aldeko botoak: 8 (8 EH BILDU). Aurkako botoak: 5 (5 EAJ).

5.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: II.7 H.G. Migelena sektoreko Plan Partzialaren aldaketa behin betiko onartzea, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Iñaki Landa Azkoaga (Hirigintza Batzordeko idazkaria eta Udal arkitektoa) 21eko ekainaren 15ean egindako Hirigintza batzordearen sinatutako aktak dio:

“II.7 H.G. Migelena sektoreko Plan Partzialaren aldaketa (2722)(237/2020/P09))

II.7 H.G. Migelena Sektoreko Plan Partziala behin betiko izaeraz onartu zuen Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2003ko maiatzaren 6ko batzaraldian.

Aipatutako Plan Partziala aldatzeko LKS Ingenieria SCoop enpresaren dokumentua aurkeztu zuen Fagor Industrial SCoop enpresak.

Horrela, erabaki hauek hartu zituen Osoko Bilkurak, 2021eko urtarrilaren 28an.

Lehenengoa.- *Hasierako onespina ematea II.7 H.G. Migelena Sektoreko Plan Partzialaren aldaketari.*

Bigarrena.- *Espedientea jendaurrean jartzea hogeitun egun balioudun -Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratzen denetik zenbatzen hasita- eta hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuta, nahi duenak aztertu eta alegazioak egin ditzan.*

Hirugarrena.- *Horrez gain, dagozkion txosten sektorialak eskatuko dira (Ur Agentzia, Foru Aldundiko Bide Azpiegitura saila, Telekomunikazioak, Aire-nabigazio bide-zorrak...)*

Erabakia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2021/02/18ko 32 zkidun GAO), Udal Iragarki Taulan eta Gara (2021/02/11) nahiz El Diario Vasco (2021/02/11) egunkarietan argitaratu zen, eta tarteko direnei jakinarazpen zuzena egin zitzaion.

Jendearen agirian egon den epean ez da jaso dokumentuari buruzko alegaziorik.

Era berean, Ur Agentziaren eta Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako departamentuaren aldeko txostenak jaso dira. Bestalde, ez da jaso Telekomunikazioei buruzko 9/2014 Legeak eskatutako txostena. Aipatutako legetako 35 artikulua araberak, hiru hilabeteko epean txostena ematen ez bada, aldekotzat hartuko da.

Horrez gain, Aireportuen eta Aireko Nabigazioaren Zuzendariorde Nagusiak jakinarazi duenez ez du txostenik eman beharrik, sistema orokorraren kokalekua ez baitago zortasun aeronautikoa duten eremuen barruan.

Hori horrela izanik, II.7 H.G. Migelena Sektoreko Plan Partzialaren aldaketa behin betiko izaeraz onartzea proposatzen dio Hirigintza Batzordeak Osoko Bilkurari."

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen **68. artikulua** honako hau ezartzen du:

"Plan partzialen edukia dokumentu hauetan formalizatuko da:

A) Informazio- eta justifikazio-memoria. Bertan, plangintza-ahala erabiltzeko irizpen-elementuak biltzen dituen informazio guztia jaso beharko da, eta erabakiak hartzeko alternatibak formulatzeko eta hautatzeko prozesua deskribatu beharko da, herritarren partaidetzarako egindako alegazio, iradokizun eta erreklamazioen azterketa barne, bai eta plan orokorrak ezarritako egiturazko eta zuzendaritzako antolamenduarekiko egokitzapenaren justifikazioa ere.

B) Informazio-planoak.

C) Antolamendu xehatuko planoak.

D) Gauzatzea antolatzeke eta kudeatzeko jarraibideen azterketa.

E) Plan orokorra garatzeko hirigintza-arauak.

F) Ekonomia- eta finantza-bideragarritasunaren azterketa."

Halaber, lege horren **96. artikulua** honako hau xedatzen du:

"Plan partzialaren behin betiko onarpena ukatu ahal izango da lege honen, lurralde-antolamenduko tresnen edo plan orokorraren zehaztapenen edo sektoreko legeriaren xedapenen aurkakoa bada, edo ordenamendu juridikoak ezarritako prozedura-, dokumentu- eta material-eskakizunak ez badira betetzen.

2. Nolanahi ere, plan partzialei 91. artikuluko 5., 6. eta 7. paragrafoetan ezarritakoa aplikatuko zaie.

3. Behin betiko onespeneraren erabakia plan partzialaren zehaztapenetan aldaketak sartzearen baldintzapean jarri ahal izango da, betiere planaren edukiari funtsean eragiten ez badiote, eta aldaketa horiek jasotzen dituen testu bategina aurkeztearen baldintzapean argitaratu ahal izango da. Bestela, ez da onartuko."

Udaleko idazkariaren 7/2021 txostena, ekainaren 21ekoa dago espedientean.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 47. artikulua honako hau xedatzen du:

"2. Korporazioetako legezko kide-kopuruaren gehiengo osoaren aldeko botoa behar da honako gai hauetan erabakiak hartzeko:

LL) Korporazioak hirigintza-legerian aurreikusitako plangintza orokorreko tresnak izapidetzean hartu beharreko erabakiak."

Azaldutakoagatik, Hirigintza batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

Akordioa

Lehenengoa. - Onartzea behin betiko II.7 H.G. Migelena sektoreko Plan Partzialaren aldaketa.

Bigarrena. - Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

Hirugarrena. - Plan Partzialaren ale bat Foru Aldundira igorri, hirigintzako plangintzaren erregistro administratiboan sartzeko.

Laugarrena. - Erabaki hau oso-osorik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian argitaratu.

Gaia aztertuta, eta hirigintza batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

6.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Kalegoienako garaje baten salmenta, Hirigintzako Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Iñaki Landa Azkoaga (Hirigintza Batzordeko idazkaria eta Udal arkitektoa) 21eko ekainaren 15ean egindako Hirigintza batzordearen sinatutako aktak dio:

“Kalegoienako garaje baten salmenta

2009ko azaroaren 26ko Osoko Bilkurak onartutako baldintza pleguen arabera, Kalegoiena 12 zenbakiko 2. sotoko 52 aparkalekuak saltzeko prozedura ezarri zuen Udalak.

Baldintza hauen 13 artikuluan azaltzen da, plaza guztiak saldu arte, jarraitu beharreko prozedura zein den: hilerro, dauden eskaeren artean zozketa berri bat egitea hasierako prozedura berea erabiliz.

2021eko martxoan eta apirilean egon ziren eskaerak aztertuta eta aparkaleku bat erosteko bete behar diren baldintzak betetzen dituzten egiaztatu ondoren, 2021eko maiatzaren 13ko Alkate Dekretuaren erabakiz, zozketan parte hartuko zutenen zerrenda onartu zen eta iragarki Taulan jarri zen 5 egun naturalez.

Epea bukatuta, maiatzaren 24an zozketa egin da eta hona hemen emaitzak:

Izena	N.A.N.	Garaje zkia.	Prezioa
			17.750 € + B.E.Z

13

Gaia aztertu ondoren, Osoko Bilkurak honako erabakiak hartzea proposatu du Batzordeak:

Lehena: Aipatutako zozketaren emaitzak onartzea eta zerrenda Udalaren Iragarki Taulan jendagirian jartzea.

Bigarrena: Zerrendan agertzen direnei bertan adierazten den prezioan saltzea garajeak, eta salmenta-eskiriturak gauzatzeko Alkateari ahalmenak ematea.”

Azaldutakoagatik, Hirigintza batzordearen oniritziarekin, Osoko bilkurari honako hau proposatzen zaio:

Akordioa

Lehena.- Aipatutako zozketaren emaitzak onartzea eta zerrenda Udalaren Iragarki Taulan jendagirian jartzea.

Bigarrena.- Zerrendan agertzen direnei bertan adierazten den prezioan saltzea garajeak, eta salmenta-eskiriturak gauzatzeko Alkateari ahalmenak ematea.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta hirigintza batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

7.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: [REDACTED] egindako eskaera onartzea eta Olaburu zentruko ZM8 bulegoa alokatzea, Sozioekonomia eta Turismo Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 6an.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Unai Kortabarria Errastiren (Enplegu teknikaria) 2021eko ekainaren 9an egindako Sozioekonomia eta Turismo batzordearen sinatutako aktak dio

[REDACTED]: Olaburu zentroan kokatzeko eskaera.

[REDACTED] jarduera berri bat jarri du martxan, "Portal GEO" izeneko proiektua, Blockchain nodo baten bidez enpresa kudeaketarako software bat garatzeko.

Jarduera proiektua hau kokatzeko Olaburu zentruko ZM8 bulegoa alokatzeko eskaera egin du 2021eko maiatzaren 28an. ZM8 bulegoak 22,44m² ditu, ondorioz lehenengo urteko alokairu prezioa 23,11euro/hileko (BEZ-a aparte) izango litzateke.

Alokairu kontratuak 2021eko uztailaren 1etik 2022ko ekainaren 4arteko iraupena izango luke, urtez urte luzatzeko aukerarekin eta gehienez ere 5 urte bete arte.

Kontratua sinatzen den momentuan 46,22€-ko fidantza jarri beharko du.

Gaia azterturik, batzordeak, ondorengo erabaki proposamen egiten dio eta Osoko Bilkurari:

LEHENGOA .- [REDACTED] egindako eskaera onartzea eta Olaburu zentruko ZM8 bulegoa alokatzea, goian azaldutako baldintzetan.

BIGARRENA.- Erabakia interesdunari jakinaraztea.

HIRUGARRENA,. Olaburuko araudia zehaztutako prozeduraren arabera, eskaera onartu eta hilabeteko epean eskatzaileak gainontzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du udal erregistroan:

- b) Jarduera Ekonomiko Zergan alta eman izanaren agiria.
- c) Dagokion kasuan enpresako bazkideen edo titularren eta bertako langileen alta-agiriak Gizarte Segurantzari.
- d) Erantzukizun zibil orokorreko polizaren kopia.
- e) Alokairu kuotak kobratzeko kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- f) Olaburu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren araudian jasotako prozedura bereziaren arabera jardueraren txostena (9. Artikuluan a) puntua)."

Olaburu enpresa ekimenetarako zentroaren araudia 2018ko martxoaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (62. zenbakia). Bere 3. eta 5. Artikuluetan honako hau xedatzen da:
*"-Oñatiko Udalak Enpresa Ekimenetarako Zentroa (E.E.Z.) programaren bidez enpresa-ekimen berrien bideragarritasuna erraztu nahi du hasierako kokapenerako lokalak aldi baterako utzita. Horretarako, Oñatiko Udalak hainbat modulu egokitu ditu, industri eta zerbitzu jarduerak garatzeko.
 -Eskaera kopurua erabilgarri dauden lokalak baino handiagoa baldin bada, lorturiko puntuazioaren arabera esleituko dira lokalak, 6. artikuluko balorazio-irizpideen arabera. Eskabide horiek, Sozioekonomia Batzordearen irizpenarekin batera, Oñatiko Udaleko Osoko Bilkurara helaraziko dira berari buruz erabakia har dezan."*

Gaia azterturik, eta Sozioekonomia eta Turismo batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

LEHENENGOA.- [REDACTED] egindako eskaera onartzea eta Olaburu zentruko ZM8 bulegoa alokatzea, goian azaldutako baldintzetan.

BIGARRENA.- Erabakia interesdunari jakinaraztea.

HIRUGARRENA.- Olaburuko araudia zehaztutako prozeduraren arabera, eskaera onartu eta hilabeteko epean eskatzaileak gainontzeko dokumentazioa aurkeztu beharko du udal erregistroan:

- a) Jarduera Ekonomiko Zergan alta eman izanaren agiria.
- b) Dagokion kasuan enpresako bazkideen edo titularren eta bertako langileen alta-agiriak Gizarte Segurantzaren.
- c) Erantzukizun zibil orokorreko polizaren kopia.
- d) Alokairu kuotak kobratzeko kontu korrontearen titularitatea egiaztatzen duen agiria.
- e) Olaburu Enpresa Ekimenetarako Zentroaren araudian jasotako prozedura bereziaren arabera jardueraren txostena (9. Artikuluan a) puntua).

Gaia aztertuta, eta Sozietekonomia eta Turismo batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Etxez etxeko laguntza zerbitzu Kontratua urtebetez luzatzea 2022ko irailaren 30era arte, Ongizate Zerbitzu Informazio Batzordean diktaminatua 2021eko ekainaren 15ean.

Idazkariak Alkatezaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

ITXARO LEIBAR SANPEDRO ANDREAK, Oñatiko Gizarte teknikaria, 2021eko ekainaren 15eko datuz Ongizate Zerbitzu Batzordeak honako DIKTAMENA eman zuela ziurtatzen du ekainaren 18ko ziurtagiriaren arabera:

Esp. Zb.: K1A-2018

Etxez etxeko laguntza zerbitzua: K1A-2018 kontratuaren luzapena

15

Gizarte-teknikariak azaldu du EULENeko ordezkariekin hitz egin duela kontratua irailaren 30ean bukatzen delako. Lizitazio hau 2 urterako da, eta bi luzapen izateko aukera du. Printzipioz ez dute inongo oztoporik jarri luzapena egiteko.

Osoko Bilkurak 2018ko martxoaren 7an erabaki zuen etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratatua lizitazio publikora ateratzea eta lizitazio hori arautuko zuen baldintza-agiria onartzea. Lizitazioaren oinarriak honako hauetan argitaratu ziren: 2018ko martxoaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2018ko martxoaren 10eko Europako Elkarteko Egunkarian eta Oñatiko Udaleko Kontratazio atarian.

Prozedura guztia bukatu ondoren, 2018ko uztailaren 26an, Udalbatzak honako hau erabaki zuen:

- Oñatiko Udalaren etxez etxeko laguntza zerbitzua Eulen Servicios Sociosanitarios SA-ri adjudikatzea, enpresak aurkeztutako proposamenaren arabera eta onartutako Baldintzen Zerrenda Teknikoan jasotako preskripzioaren arabera.
- Kontratuaren iraupena bi urtekoa izango da, 2018ko urriaren 1etik aurrera; beste bi epealdi luzatu ahal izango dira, eta ezingo da inolaz ere 4 urte baino gehiagokoa izan.

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2018ko irailaren 4an argitaratu zen (170. zk) eta kontratua indarrean sartu zen 2018ko urriaren 1ean. Kontratuaren iraupena 2 urterako zen (indarrean dagoen kontratua 2020ko irailaren 30ean amaitu zen).

2020ko uztailaren 23an, Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen kontratua urtebete luzatzea, hain zuzen, 2021eko irailaren 30 arte, 1. luzapena izanik.

“Eulen Servicios Sociosanitarios SA”-rekin harremanetan izanik, enpresa prest dago kontratua luzatzeko.

Gizarte Zerbitzuetako teknikariek baloratu ondoren eta goian aipatutakoa kontuan izanik, Ongizate Zerbitzuen Batzordeak Toki Gobernu Batzordeari honako hau proposatzen dio:

- Kontratua urtebetez luzatzea 2022ko irailaren 30era arte (2. luzapena izango litzateke)
- Bigarren luzapena izanik, ezingo da inolaz ere 4 urte baino gehiago luzatu. Horrek esan nahi du, udalak 2022. urtean zehar zerbitzua lizitazio-prozedura martxan jarri behar duela.”

SPKL 29.2 artikulua dio:

“Kontratuak behin edo zenbait aldiz luzatzeko aukera jaso ahalko du, baldin eta haren ezaugarriak ez badira aldatzen luzapen horiek irauten duten bitartean; hori ez da eragozpena izango lege honen 203. artikulutik 207. artikulura ezarritakoaren arabera sar daitezkeen aldaketetarako.

Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta aurreabisua kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere bi hilabete lehenago egiten bada; kontratuaren baldintza-agiriak hori baino epe luzeagoa ezar dezake.

Aurreabisuaren betebeharretik salbuetsita daude bi hilabete baino gutxiago irauten duten kontratuak. Inolaz ere ezingo da kontratua luzatu aldean isilbidezko adostasunez.

Apartatu honetan ezarritako kontratu-luzapena ez da nahitaezkoa izango kontratistarentzat, kontratuan 198.6 artikuluan ezarritako suntsiarazte-kausa gertatzen bada, hau da, Administrazioa prezioaren ordainketan sei hilabete baino gehiago atzeratu bada.”

Gaia azterturik, eta Ongizate Zerbitzu batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

LEHENENGOA.- Etxez etxeko laguntza zerbitzu Kontratua urtebetez luzatzea 2022ko irailaren 30era arte (2. luzapena izango litzateke). Bigarren luzapena izanik, ezingo da inolaz ere 4 urte baino gehiago luzatu. Horrek esan nahi du, udalak 2022. urtean zehar zerbitzua lizitazio-prozedura martxan jarri behar duela.

BIGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Gaia aztertuta, eta Ongizate Zerbitzu batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotziek aho batez onartu dute.

9.- Hala badagokio, presako gaiak.

Alkatearen eskariz, presazko gai bat gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, gaia arrazoitzea eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, gai hau zerrendan sartzea erabaki da 13 boto aldekoekin (8 EH BILDU + 5 EAJ).

9.1.-Onartzea, hala badagokio, Alkateak egindako proposamena 2021eko ekainaren 17an egindako Zerbitzu batzordean emandako diktamena Udal hilerrian kolunbarioak eskaintzeko ordenantza fiskalaren aldaketari buruzkoa.

Idazkariak Alkatetzaren proposamen hau irakurri du -dagokion batzordeak eman zuen horren gaineko irizpena:

Gaia: Udal hilerrian kolunbarioak eskaintzeko ordenantza fiskalen aldaketa.

2021eko ekainaren 17ean egindako Zerbitzu batzordearen akta, Xabier Berridi Iriarte, Oñatiko Azpiegitura teknikariak sinatua. Honela dio:

Udal hilerrian azken urteetako hilobien salmentek eragin dute gero eta hilobi gutxiago libre egotea. Salmentarekin jarraituz gero sor zitezkeen arazoak ikusita, Osoko Bilkurak erabaki zuen Oñatiko Udal Hilerriaren Erregimen eta Funtzionamendurako Araudiaren 14. artikulua bertan bera utzi eta udal hilerriko kontzesio administratibo edo emakida berriak ematea etetea.

Bestalde Udalak, herritarrei hilerriko zerbitzua emateko, kolunbarioak jartzea erabaki eta horrela egin du, hilerriko 2. handitze-lanen goiko aldean 64 kolunbario jarrita.

Ondorioz, proposatzen da Udal hilerrian kolunbarioen kontzesio administratibo edo emakida berriak emateko ordenantza fiskalen aldaketa.

Egindako inbertsioa ikusita eta ondoko herrietako erreferentziak kontuan hartuta, 10 urterako kolunbario baten (plaka barne) emakida 150 €tan finkatzea proposatu du Batzordeak.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak 20. artikulutik 27.era arautzen ditu tasak. Ordenantza fiskalak aldatzeko, aipatutako foru arauaren 16. artikuluan aurreikusitako prozedura bete beharko da.

Eransten den zergapeko egitatea eta kuota honako hau da:

- 10 urteko epean kolunbarioak emateagatik, tributu-kuota urtean **150 €** izango da.

Gaia aztertu ondoren eta Zerbitzu Batzordearen irizpena aldekoa dela kontuan hartuz, Udal Plenoari eskatzen dio Oñatiko Udaleko 2021ko Zerga Ordenantzen aldaketa onar dezala.”

Udaleko idazkariaren 9/2021 txostena, ekainaren 23koa dago espedientean.

Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen FORU ARAUA Erregulatzailerak, bere **16. Artikuluan** dio:

“1. Udal Korporazioek, tributuen ezarpen, ezabatze eta antolamendurako eta tributu kuota ezberdinen zehaztapenerako beharrezko diren elementuen finkapenerako hartutako akordioak eta baita ere, dagozkien Ordenantza Fiskalen onespenean eta aldarapenak Entitatearen iragarki taulan jarriko dira agerian hogetamar egunetan zehar, berauetan interesguneak espedienteaz aztertu ahal izango dutelarik eta egokitzat jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu.

2. Udallerriek, dena den, azalpen iragarkiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dituzte. Era berean, 10.000 pertsona baino gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten Entitateek Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu beharko dituzte.

3. Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioek behar diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzen behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarapenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

4. Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarapenen testu bateratuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratzen hori burutua izan ez dadin artean.

5. Hogeita mila pertsona baino gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten udallerrietan, bertako tributuen Ordenantza Fiskal erregulatzailerak testu osoa argitaratuko da, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen lauhilabetekoaren barruan. Dena den, Udalek, argitaratutako Ordenantza Fiskalen kopia luza beharko dizkiete eskatzen dituztenei.”

Aipatutako arauaren **25. Artikuluak** honako hau xedatzen du:

“Herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobeixamendu bereziagatik tasak ezartzeko erabakiak edo zerbitzu berriak osorik zein partez finantzatzekoak, txosten tekniko-ekonomikoak behin ikusita hartu behar dira; txosten horietan, hurrenez hurren, herri jabariaren merkatuko balioa edo zerbitzu horiek estaltzeko aurreikusten den era adierazi behar dira. Aurreko paragrafoan aipatu den txosten tekniko-ekonomikoa aurkeztea ez da beharrezkoa izango erabakiak izaera orokorreko birbaloratze edo eguneratzeengatik hartzen direnean edo tasen zenbatekoa murrizten denean, kasuan kasuko zerbitzuaren kostua nabarmen jaisten ez bada behintzat. Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, murrizpena nabarmena dela joko da aurreikusten denean zerbitzuaren kostua 100eko 15 baino gehiago jaitsiko dela tasak ezarri edo aldatzeko erabakiari erantsitako txosten teknikoekonomikoan aurreikusitakoaren aldean. Txosten tekniko-ekonomikorik ez aurkeztea arrazoitzeko, gastua kudeatzen duen organoak berariaz utzi behar du jasota aldaketa onartzeko espedientean kostua ez dela modu nabarmenean murrizten.”

Gainera, 32/2018 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, Gipuzkoako toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzeko duena, bere **3. Artikuluan 1 eta 2** atalean honakoa xedatzen du:

“1. Tokiko sektore publikoaren jarduera ekonomiko-finantzarioaren barne kontrola organo kontu-hartzaileak egingo du eginkizun kontu-hartzailearen eta kontrol finantzarioaren bidez. Bi ariketa moduetan, 21/2003 Foru Arauaren 68. artikuluan aipatutako eraginkortasun eta efizientzia kontrola ere sartuko da.

2. Eginkizun kontu-hartzailearen xedea da toki entitatearen eta bere organismo autonomoen egintzak kontrolatzea, haien sailkapena edozein izanik ere, baldin eta egintza horien ondorioz eskubideak onartu edo gastuak egiten badira, bai eta haietatik eratoritzen diren sarrerak eta ordainketak nahiz haien funts publikoen inbertsio edo aplikazio orokorra ere, ziurtatu nahi baita haien kudeaketa kasu bakoitzean aplikagarri diren xedapenekin bat datorrela.”

Gaia azterturik, eta Zerbitzuak batzordearen aldeko irizpena izanik, osoko bilkurari honako hau proposatzen dio:

LEHENENGOA.- Jabari publikoaren erabilera pribatiboagatik tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren aldaketa onartzea.

Proposamen horrek aurrera egingo balu, eransten den zergapeko egitatea eta kuota honela idatzita geratuko litzateke:

- 10 urteko epean kolunbarioak emateagatik, tributu-kuota urtean **150 €** izango da.

BIGARRENA.- Erabaki hau, 30 egunez, udal iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetako duen egunkari batetan argitaratzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

HIRUGARRENA.- Epe horretan erreklamaziorik aurkezten ez bada, ordura arte behin-behinekoa izan den erabakia behin betikotzat joko da.

Ordenantza fiskala behin betiko egindakoan, ordenantza fiskalaren aldaketa osorik argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Behin argitaratua, interesdunek erreklamazio ekonomiko administratiboa aurkeztu ahal izango dute Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean, hilabeteko epean ala 2 hilabeteko epean errekurtsio kontentzioso-administratiboa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazio auzian.

Kontu-hartzailearen aldeko txosten tekniko-ekonomikoa dago espedientean, 2021eko ekainaren 24ekoa.

18

Gaia aztertuta eta Zerbitzuak batzordearen irizpena kontuan hartuz, udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, alkateak bozketa agindu du. Proposamena zinegotzietatik aho batez onartu dute.

10.- Hala badagokio, larrialdi-mozioak.

Elorza andrearen eskariz, presazko mozio bat gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, mozioa arrazoitzea eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, mozio hau zerrendan sartzeko erabaki da 13 boto aldekoekin (8 EH BILDU + 5 EAJ).

10.1 EHBILDUKo Udal taldeak aurkeztutako torturaren biktimak babesteko nazioarteko eguneko mozio.

Elorza andreak mozio hau irakurri du:

“Ekainaren 26an, Nazio Batuek Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Eguna bultzatu zuten, António Guterres idazkari nagusiaren hitzekin bat: *“Torturazailleen krimenak ez dira inola ere zigorgabe utzi behar, eta tortura ahalbidetzen duten sistemak eraldatu egin behar dira”*. Nazioarteko erakundeak gogorarazten du tortura Gizateriaren aurkako krimena dela, eta salatzen du “biktimaren nortasuna suntsitzen duela eta gizaki ororen berezko duintasuna mespretxatzen duela”.

Eusko Legebiltzarrak, 2019ko ekainaren 6an, egun hori ospatzearen aldeko jarrera hartu zuen, eta Eusko Jaurlaritzari torturaren biktima guztiak berariaz aitortzeko ekitaldia egin zezala eskatu zion, beste biktima batzuei egiten dizkien ekintzen antzeko parametroetan ulertuta.

Torturatutako pertsonen kolektiboak askotan adierazi du, biktimizazio bikoitza jasaten dutela biktimarioei omenaldia eta aitortpena egiten zaizkienean.

Testuinguru horretan, Udal honek torturaren biktimen eskaera kolektiboa babestu behar duela uste du, beste biktima batzuen parean onartpena izan dezaten, nahiz eta sufrimendu hori sistematikoki ezkutatu den eta erakundeek bertan behera utzi dituzten erreklamazioak.

Horregatik, Oñatiko Udalbatzak hurrengo adosten du:

1. Torturaren Biktimak Babesteko Nazioarteko Egunerako Nazio Batuek egindako deiarekin bat etorriz, torturak Euskal Herriko indarkeria politikoaren testuinguruan duen sakontasuna eta hedadura berariaz onartzen du, zalantzarik gabeko txostenek zenbatutako 5.000 kasu baino gehiago daudela onartu ere.
2. Krimen horien zigorgabetasuna ez onartzera eta tortura ahalbidetzen duten sistemak (legeria eta auzitegi bereziak, torturaz erazutako testigantzetan oinarritutako zigorrak...) eraldatzera eta bertan behera uztera deitzen dugu.
3. Gorputz polizial desberdinen eskuetan tortura fisiko edo psikiko oso larriak jasan dituztenen abandonua eta ahanztura instituzionala salatzen du.
4. Aitortza Instituzionala egiten dio haien sufrimenduari egia, justizia eta oroimena eskatuz, eta etorkizunean inoiz ez errepikatzeko neurriak hartu daitezzen.”

Udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamahiru bertaratuta, Alkateak bozketa agindu du. Mozioa onartu da. Aldeko botoak: 8 (8 EH BILDU). Aurkako botoak: 5 (5 EAJ).

19

Galdos andrearen eskariz, presazko mozio bat gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, mozioa arrazoitzea eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, mozio hau zerrendan sartzera erabaki da 13 boto aldekoekin (8 EH BILDU + 5 EAJ).

10.2 Oñatiko EAJ-PNV Udal taldearen mozio alternatiboa: TORTURAK.NAZIO ARTEKO EGUNA 2021.

Galdos andreak mozio hau irakurri du:

“Eusko Legebiltzarrak torturaren eta botere-abusuen biktimak aitortzeari buruz onartutako 69/2019 legez besteko proposamenarekin bat etorriz,

EAJ UDAL TALDEAK:

1.- Nazio Batuen Ekainaren 26an Torturaren Biktimen aldeko Nazioarteko Eguna ospatzeko ekimenarekin bat egiten du.

2.- Oroitzapen horren helburua da biktima horiek gizartearen aurrean aitortzea, giza eskubideen urraketa larri horrek dakarren bidegabekeriagatik. Horrela, torturaren eta botere-abusuen biktimekiko beharrezkoa den aitortpen instituzionala babesten dugu, haien sufrimenduari egia, memoria eta ordaina emateko beharri balioa emanaz, eta botere publiko demokratiko guztiei eskatzen diegu neurriak har ditzatela, etorkizunean inoiz errepikatuko ez direla bermatzeko.

3.- Jakinaraz bekie akordio hau Eusko Jaurlaritzari eta Espainiako Gobernuari.”

Udalbatza osatzen duten hamazazpi zinegotzietatik hamairu bertaratuta, Alkateak bozketa agindu du. Mozioa ez da onartu. Aldeko botoak: 5 (5 EAJ). Aurkako botoak: 8 (8 EH BILDU)

1.- Ekainaren 28a dela-eta LGTBI harrotasunaren nazioarteko egunaren aldeko egindako adierazpen instituzionala.

Elorza andreak adierazpen instituzional hau irakurri du:

EKAINAK 28, LGTBI HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA

52 urte igaro dira Stonewallen lesbiana, gay, transexual eta, batez ere trabestiak, poliziaren aldetik jasaten zituzten jazarpena eta xantaiaren aurrean erreboltatu zirenetik: data hori mugarri bihurtu zen LGTBI pertsonen borrokan. 10 urte beranduago, 1979ko ekainaren 10ean, polizia batek Antonio Vicente Santa María (Francis) hil zuen Errenteriako diskoteka batean, trabesti izateagatik. Ekainaren 28 horretan LGTBI pertsonak eta kolektiboak Euskal Herriko kaleak hartzen dituzte estreinako aldiz, euren sexualitatea eta generoa modu askean bizitzea aldarrikatuz.

Stonewalleko gertakarien geroztik ekainaren 28an LGTBI Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da: borroka disidente luzea eta egindako lorpenak ospatzeko eguna da, baita eskubideen eremuan aurrerantz egiteko falta den guztia aldarrikatzeko eguna ere.

Urtebete baino gehiago igaro da pandemiak gure bizitzak gogor astindu zituenetik. Informazio eta datu askoren arabera badakigu jada konfinamenduak LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio-maila handiagoak ekarri dituela; haien eskubideak bermatu beharrean, urratuak izan dira, zaurgarritasun bereziko testuinguru batean.

Albaina, pandemiak ere agerian utzi du kolektiboan eta ekintzaileen urteetako borroka neketsuari esker lortu diren eskubideak hauskorak direla, eta oso erraza dela horiek galtzea eta atzera egitea. Argi daukagu sexu- eta genero-aniztasunaren aurkako diskurtso eta planteamenduak ugaritu egin direla, eta ezin dugula arreta galdu. Erasoen gorakadaren adibide argia da duela egun gutxi Basaurin gertatu den eraso homofoboa.

Orain, osasun-krisitik ateratzen ari garen honetan, "Normaltasun" desiragarria itzultzeko diskurtsoak nagusitzen ari dira. Normaltasun horrek mendekotasun-egoeran daudenentzat, marjinetan bizi direnentzat... baztertuta bizitzen jarraitzea esan nahi du, beren eskubideez gozatu gabe edo dituztenak galduta. Horregatik, oraindik ere beharrezkoa da LGTBI kolektiboaren eskubideen aldeko borroka ikusarazten jarraitzea.

Urtero bezala, ekainaren 28 honetan aitortu nahi dugu LGTBI kolektibo eta pertsona ugariren borroka luze eta ordainezina Euskal Herrian: garai zail hauetan, pertsonen eta gure herriaren emantzipaziorako erreferente direla erakusten jarraitzen dute.

Era berean, Udal honek LGTBI pertsonen eskubideekin urteko egun guztietan duen konpromiso politikoa berretsi nahi du. Adierazpenetatik haratago, gure konpromisoa politika zehatzetan islatu behar da, bakoitzak bere giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomikoekin: mugimendu feministako eta LGTBI mugimenduko ordezkari eta adituekin adostu behar diren politikak

Horregatik, Udal honek hartutako konpromisoarekin jarraitzen du honako hau egiteko:

- 1) Giza eskubideekin dugun konpromisoa berresten dugu, baita aniztasun sexualaren, genero identitatearen eta orientazio sexualaren arabera jendea ez diskriminatzearekin ere. Egin diren aurrerapausoak aitortzeaz gain, berresten dugu egun oraindik dauden barrerak gainditzeko gure erabakia.
- 2) LGTBI pertsonen egoeraren diagnostikoa egitea, eta honi erantzungo dion talka-plan bat bultzatzea, premiazkoenak diren ekintzak lehenetsiz.
- 3) LGTBI pertsonen aurkako indarkeriaren aurrean erakundeen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.
- 4) LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea.
- 5) Jazarpen eta eraso LGTBI fobikoei erantzuteko eta arreta emateko protokoloak bultzatzea hainbat eremutan: Hezkuntza, kultura, komunikazioa, enpresa.

- 6) Haurrak eta nerabe transexualak babesteko neurriak ezartzea, bereziki trans errealitatea barne hartzen duten hezkidetzeta-prozesuak, gizarte- eta hezkuntza-eragileekin.
- 7) Oñatiko Berdintasunerako II. Planean aurreikusten den bezala, ikuspegi feminista duten prestakuntza-prozesuak bultzatzea, langile publiko eta politikoentzat, bereziki, jendeari arreta emateko, eta gizarte- eta hezkuntza-esparrurako.
- 8) Edozein motatako erasoak gaitzesten dugu gure udalerrietan; indarkeria fisikoa edota hitzekoa, umiliazioa edota LGTBI pertsonetikiko gutxiespena.

Guzti horregatik, herritarrei dei egiten diegu LGTBI mugimenduak eta mugimendu feministak gure herri eta hirietan deitutako ekintzetan parte har dezaten.

11.- 2021eko ekainaren 8ko 628 zenbakia duen Alkate Dekretuaren berri ematea, non Kontratazio- arloko zenbait eskumen gobernu-batzarrari eskuordetzen zaizkio.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

12.- 2021eko ekainaren 8ko 631 zenbakia duen Alkate Dekretuaren berri ematea, non Udalaren zenbait kontratu txiki izapidetzeari buruzko jarraibide onartzen den.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

13.- Maiatzaren 22tik ekainaren 18a bitartean eman diren alkate dekretuen berri ematea, 542 zenbakitik 688 zenbakira.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

14.- Galderak eta eskaerak.

Ez daude.

Besterik ezean, 19:40ak zirenean, Alkateak amaitutzat jo zuen bilkura, eta esandakoak jasota gera daitezzen egin dut agiri hau Alkatearen ontzat emanarekin.

O.E

Alkateak

Idazkaria

Izaro Elorza Arregui

Iñigo Roldan Catalan